

2004ko azaroaren 18a • XXIV. urtea


Edurne Elizondo
kazetari beratarra

03

"Itoitz: porlanezko gezurra" izenburupean, Itoitzko urtegiari buruzko liburua argitaratu du Txalapartan Edurne Elizondo kazetari beratarrak.


Azienda ferien
azken txanpa

GB

Doneztebe eta Lesakakoek ixten dute udazkeneko ferien txanda. Aurten, lehen aldiz Goizuetan ere egingen da azienda eta artisau feria azaroaren 27an.



04

Labiaga Ikastola

2006ko Nafarroa Oinez

Beran egingen da

KULTURKARI

PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

PUBLIZITATE AGENTZIA
Iragarkiak irrati, telebista
eta egunkarietan.

Publizitate kanpainen
antolaketa eta
gestioa.

DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,
ZERBITZU INTEGRALA

Andutzeta 12
31760 ETXALAR
(0034) 948 63 54 58
kulturkari@ttipi-net



MUEBLES AMETS

larunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERAtik da**

Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga


31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com



- Sukaldeak
- Egongelak
- Logelak
- Bainugelak



DATUAK...

- **Edurne Elizondo Berako** kazetariak "Itoitz: porlanezko gezurra" liburua argitaratu berri du.
- Egin egunkarian eta Egin eta Xorroxin irratian hasi ondotik Euskaldunon Egunkarian aritu zen Juan del Olmo epaileak itxi zuen arte. Nafarkaria-ko arduraduna izan da hainbat urtez, eta egun, Berriako kazetaria da.
- Bere lehenbiziko liburuan Itoitzen 20 urteko borrokak eman duena ekarri nahi izan du gogora.



Edurne ELIZONDO Berako kazetaria eta idazlea

ARGAZKIA: BERRIA

«Itoizko aferan komunikabideetatik kanpo gelditu dena bildu dut liburuan»

Joseba OLAGARAI

Itoitz urtegiaren afera denok segitu dugu hedabideen bidez. Hala ere zuk ez duzu komunikabideek agertutako errealtatea erakutsi nahi izan...

Ez, nik komunikabideetatik kanpo gelditu dena eta egunkarietan lekurik izan ez duena bildu dut liburuan. Batez ere pertsonak dira protagonista, euren testigantzak bildu bait ditut. Jende aunitz 20 urtez urtegiaren baldintzapean bizitu da. Horma horrek goizetik gauera aldatu die bizitza. Hainbat urtez goardia zibilak bijilatuta egon dira, eta orokorrean, urtegiaren inguruan mugitu da euren bizimodua. Hori da liburuko mezu nagusia, pertsona hauen bidez bizipen horiek kontatzea.

Bizipen horiek hagitz hurbila egi-ten dute liburua. Solidariorak, herritarrek... agertzen dituzu.

Dudarik gabe hurbiltasun gehiago dago liburuan bertze edozein artikulutan baino. Izan ere, euskarri bakoitzak bere arauak ditu eta artikuluetan bistan da ezin zarela pertsonengandik hain hurbil jarri, egunkariak

«Nafarroako Gobernuak behar bat bezala saldu digu Itoizko urtegia baina guk ez dugu horren beharrik. Batzuk eskuartean duten negozio bat bertzerik ez da»

berak horrela eskatzen duelako. Liburuan ordea bai, pertsonengana gehiago hurbildu naiz eta nere iritzia ere gehiago agertu dut. Itoizko Koordinakundearekin, Elkartasun taldearekin, Artozkiko eta Itoizko herritarrekin, Agoizko biztanleekin... jende aunitzen ahotsa bildu dut. Horien artean istorio aski hunkigarriak ere badaude. Gainera izenburutik ikusten da nire ildoak zein den eta gai honi egiten diodan irakurketa.

Zein da izenburuan aipatzen duzun "porlanezko gezur" hori?

Urtegia bera porlanezko gezurra da Nafarroako Gobernuak behar bat bezala saldu digulako. Garapena eta modernitatearekin lotu dute beti eta nik liburuan erraten dut hori gezurra dela. Saltzen digutena negozio bat da, interes berezi batzuen arabera

egindako proiektua eta horren gibelean pertsona aunitz dago. Izan ere, urtegi honetaz solasterakoan kontuan hartu behar dugu pertsonak daudela hor, etxerik gabe gelditu direnak. Beraz, horma hori gezur bat da, beharizat saldu digutelako eta azkenean ez delako behar bat. Guk ez dugu Itoitzen beharrik. Batzuk eskuartean duten negozio bat bertzerik ez da Itoitz.

Liburuak kazetari lana, literatura eta kritika biltzen ditu. Hori zen zure helburua?

Egia erran ez nuen asmo edo helburu zehatzik baina jendearekin hitz egiterakoan ikusten duzu denen ahota dagoela kritika. Gainera, azken kapituluaren nire kritika agertzen dut. Hasi-eran zalantzan egon nintzen eta pentsatzen nuen nire iritzia azaltzea ez zela beharrezkoa, nahiko agerian gelditzen zelako jendearen testigantzekin. Hala ere, azkenean erabaki nuen nere liburua zela eta nire hitz eta gogoetak sartu nituen. Beraz, erranen nuke kritika badagoela eta nabarmena gainera. Eskerrak Sanzek ez dakien euskaraz!



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Joxan Oiz, Berako Labiaga ikastolako zuzendaria Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen atarian. Hamar urte daramate legalizazioa eskatzen eta hori lortzeko mobilizazioak egiten.

BERAN EGINEN DA 2006KO NAFARROA OINEZ

30 urteren ondotik legalizatu gabe segitzen du Labiaga Ikastolak

Ostiko franko hartu eta traba zenbait pasatu ondotik 30 urte bete ditu aurten Berako Labiaga Ikastolak. Hala ere ospakizun hau ez da Labiagako ikasle, irakasle eta gurasoek nahiko luketen bezain pozgarria izan. Izan ere, hamar urteko borrokaren ondotik oraindik ez dute Ikastola legalizatzea lortu. Horretako bide guztiak agortu dituztela erran digu Joxan Oiz Ikastolako zuzendariak eta “zirt edo zart” egiteko tenorea ailegatu dela. 2006ko Nafarroa Oinez Beran eginen den aitzakian luze eta zabal solastu dugu berekin.

Joseba OLAGARAI

Duela 30 urte izan zen guraso eta lagun talde batek Ikastola sortzeko erronka hartu zuela. Ez ziren garai erraxak baina talde honen gogoak, ilusioak eta lanak poliki-poliki proiektu hura aitzinera ateri zuen. Ibilbide

luze horretan hamaika oztopo eta traba pasatu behar izan dituzte eta horien artean DBHko legalizazio kon-
tuak izan dira burukominik handienak eman dizkietenak. Izan ere, 1994tik aurten arte, ziento bat harat-honat egin dituzte administratiboki eta judi-

zialki. Ez dute oraindik deus lortu eta ikastolak legalizatu gabe segitzen du. Joxan Oizek erran digunaren arabera «10 urte eman ditugu indarrak gatatzen behar ez genukeen gauzetan. Ikastola ez da Nafarroako Gobernuak baimendutako edo homologatutako zerbait, baina izan, bagara. Gu ez gara izkutuan dabilen talde klandestinoa. Espero dugun gauza bakarra errekonozimendu minimo bat da. Ez dugu eskatzen inork erratea gu gara onenak baizik eta zenbait gurasok aukeratu duten eredu linguistikoa eta pedagogikoa bat garatzea. Alde horretatik arantza haundi bat dugu, gure eskubideak direnak aldarrikatzeagatik zenbait jende eta erakundek erasotzat hartzen dutelako. Guk aukera bat egin dugu eta aukera ho-

ri garatzen uztea eskatzen dugu. Idu-ritzen zaigu zenbait jendeke espero duela halako uniformetasun edo monopolizazio bat egotea irakaskuntzan eta guk ez dugu eskatzen horrelakorik. Bertzerik gabe lana egiten uztea, ongi edo gaizki, baina uztea. Era pre-kario batean ari gara aspalditik baina aitzinera segitzeko intentzioa dugu».

Egoera honekin gehiago ezin eta, Nafarroako Parlamentuan izan ziren joan den urriaren 27an euren egoera azaltzen, edo Joxanek dioen bezala «gure penak eta miseriak kontatzen». Hainbat alderdiren aldeotasuna jaso zuten eta bertze batzuk berriz «mus» edo «paso» egin omen zieten. «Hala ere erran behar dugu sentsazio mingarria eman zigula Nafarroan guztiz eskuindar eta anti-euskaltzalea den UPNren aldetik argudiatzerakoan erabili zuten irizpideak, hain xuxen hemen Bortzirietan gure bizikide, bizilagun eta zenbait kasutan lankide diren zenbait jenderen argudioak. Hau da, guk eskaera bat egin Iruñean eta UPNko agintariek erantzuten digute guk ez dugula inolako babes ofizialik, honek, honek eta honek zenbait paper sinatu dituztelako gure eredia babestu gabe. Guk erraten ahal dugu Bortzirietako udalen babesa badugula, berriki berritutakoa gainera, baina Parlamentura joanda UPNkoek gure argudioen kontra egiteko duten makulua

NAFARROAKO PARLAMENTUTIK MADRILERA

Parlamentuko agerraldian azaldu-tako gauzen artean azkeneko hamar urteotako ibilbideak hartu zuen protagonismorik handiena. «1994ko Oinezaren ondotik egurra bertzerik ez dugu jaso –adierazi digu ikastolako zuzendariak– eta erran genien zenbait prozedura administratibo ireki ditugula, bortz eskaera egin ditugula DBH eskuratzeke... eta batzutan ixiltasuna izan dela erantzuna eta bertzetan gezurrezko argudio teknikoak. Argudio hauetan gainera hagitx modu txarrean erantzun digute. “Kaskagorrorak”, “burugorrorak” eta “fedetxarrekoak” deitu digute bertze adjektibo batzuen artean. Beraz, argi dago Iruñean ez gaituztela sobera maite eta orain Madrilén dagoela gure gaia erran genien. Argi eta garbi adierazi genien Parlamentuan nazkatuta gaudela. Ez gaudela prest burua eta indarra galtzeko bide administratibo eta judizialean. Eskatzen duguna errekonozimendu minimo bat da eta horrek ekarriko duen laguntza ekonomikoa».

hemengo zenbait jendeke sartutako ziriak dira. Konturatu gara ziri hauek gure kontrako ikuspegi politiko eta lin-



Hainbat mobilizazio egin dituzte Labiagako irakasle, ikasle eta gurasoen legalizazioaren alde

Izan ere, azkeneko 10 urteotan Labiaga Ikastolak Nafarroako Gobernutik jaso ez dituen diru-laguntzak 2.000.000 eurotik goitikoak dira. «Diru hau guzia zor zaigu eta nahiz eta ez garen orain eskatzen hasiko, segiduan behar duguna legalizazioa da. Heldu den ilbeltzaren 1erako Labiagako DBH legalizatua eta kontzertatua egotea eskatu genuen. Orain, erantzunaren esperoan gaude».

guistikodun alderdi baten makulu direla. Horixe da guretzat benetan mingarria dena».

Joxan OIZ Labiaga ikastolako zuzendaria



Hirugarren aldia izanen da Labiaga Ikastolak Nafarroa Oinez besta antolatzen duela. 1983an egin zuten lehenbizikoa, 1994an hurrengo eta hemendik bitara egi-

nen dute hirugarrena. «Nafarroako ikastola guztien artean baloratu zen zein ziren beharren arabera lehentasuna zuten ikastolak eta erabaki zen gu ginela egoera

ekonomiko eta administratiboarengatik 2006ko Nafarroa Oinez antolatzeke egokiak». Erran behar da besta erraldoi honen helburu behinena euskara bulkatu eta eraikin berri bat egitea izaten dela normala. «Hala ere guk 1994ko Oinezarekin egin genuen Lehen Hezikuntzarako eraikin berria. Oraingoarekin ez dugu deus eraiki nahi. Ikastolaren biziraupenerako bakarrik eginen dugu Oinez. Hemen-dik bi urtetara DBH legalizatua egotea nahi dugu eta horrek ekartzen dizkigun sotsak ikastolako eguneroko gastuetan inbertitu; bertzeak bertze soldatak, ordenadore berriak, paretak berri-

tzea, eta mila kontu gehiago. Izan ere, oraingo egoerari, dugun diru pixarra arnasa hartzeko erabiltzen dugu, ezin baitugu proiektu haundiagoekin hasi. Nahiko genuke biziraupen hori administrazioak ziurtatzea eta Oinezeko dirua bertzelako proiektuak egiteko erabiltzea baina tamalez gure egoerari ezin dugu horrelakorik egin». Bien bitartean, bertzelako lanetan ere segitzen dute: «Gure energiak behar den leku guzietan gastatzen ditugu, bai sosa lortzeko bai gure egoeraren berri emateko. Orain bertze saio bat ari gara egiten Nafarroako Ikastolen Elkartearen bitartez eta Nafarroako aurrekontuak egiten ari diren honetan gure gaia hor sartzea lortu dugu. Esperantza gehiegirik ez dugu baina desesperazioa ez da gure nortasunaren zatia».

“2006ko Nafarroa Oinez-a ikastolaren biziraupenerako eginen dugu»

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Comission Paritaire: En cours

TIRADA (Tirage): 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net

ARGITARATZAILEA (Editeur): ttipi-ttapa

fundazioa. PRESIDENTEA (Président):

Pello Apeztekoa. KUDEATZAILEA (Gé-

rant): Joxemanuel Irigoien. ZUZENDA-

RIA (Directeur de publication): Aitor

Arotzena. PUBLIZITATEA (Publicité):

Kulturkari, SLU ADMINISTRAZIOA (Ad-

ministration): Amaia Goia. BERRI-

EMAILEAK (Collaborateurs): Mikel Illa-

rregi, Esteban Arotzena, Juana Mari

Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau,

Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari

Etzenike, Koro Irazoki, Juan Carlos

Mortalena, Xan Harriague, Saski, An-

gela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzu-

ri, Oskar Txoperena, Joseba Olaga-

rai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotze-

na, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki,

Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kon-

sumitzaileen Elkartea...

INPRIMATEGIA (Imprimeur): Gertu. ERA-

KUNDE LAGUNTZAILEAK (Avec la parti-

cipation de): Bera, Leitza, Goizueta,

Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sa-

ra, Azkain eta Senpereko udalak, Zu-

garramurdiko Akelarre elkarteak,

Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zerbitzu

Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurilaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Juanito guarda (Goizuetakoa)

Laurogeita bat urte-
rekin joan zaigu beste bi-
zitzara gure lagun xa-
harra Juanito. Gaztea ze-
larik borondate haundia
zuen laneko.

1- Oraindela berrogei
ta iru urte, Don Ramon
apaizari asko lagundu
zion Goizuetako «Ka-
balgata» antolatzen. Ala-
xen atera zen. Zoraga-
rria. Oberena.

2- 1959ko maiatza-
ren bostean inauguratu
zen Goizuetako zentro
parroquiala: zine ederra
(350 butaka), antzerki le-
ku bikaña, taberna ede-
rra, egongelak, etab...
Bi urte iraun zituzten
obrak. Beti han egon zen
laguntzeko zain. Hamar
urtez lana egin zuen zen-
tro honek, eta Juanitok
laguntza asko eman zion
etxe honeri. Esan beha-
rra dago zentro parro-
kiala egiteko Don Satur-
nino apaizak lan asko
egin zuela eta hamar ur-
tean berak erabili zuen
zentroko martxa.

3- Meza berriak: Goi-
zuetako bost apaiza be-
rriak lendabiziko meza
saindua eman zutene-
an: Don Juan, Don La-
zaro, Don Ramon, Don
Jose Javier eta Don pe-
dro, Juanitok egin zituan
hainbeste eta hainbeste
lan, adornatzen elizako
ataria.

4- Oraindela urte pi-
lla bat, baita ere etorri-
zen gure herrira, Fati-
mako Ama Birjiña. Pla-
zan monumentu bategin
zen, oso polita. Juanito
izan zan lan hoi buru.

Esan beharra dago,
nahiz meza berrietan eta
Ama Birjiña Fatimakoa
etorri zenean, hainbes-
te lanen buru Juanito izan
arren, berarekin batean
equipo ona aritu zela la-
nean aunitz: Felixia, Xi-
xili eta beste nextatx bo-
rondate onekoak.

Jaunak eman deza-
yola betiko pakea.

Anttoniko (Goizueta).

Labiaga-Toki Ona: aukera guztiak, nola?

Izan zen duela 10-12
urte gure zonaldean be-
har den bezalako ikas-
tetxe nagusi bat sortze-
ko aukera. Horretarako
ikastetxe guztiak bilera
batetan elkartu ziren,
ikastetxe nagusi hori de-
nen artean eta adosta-
sunez diseinatzeko in-
tentzioakin.

Bainan ez zen lortu.
Ez ziren ados jarri. Eta
bi proiektu desberdine-
tan banatu ziren: bate-
tan bi ikastolak bildu zi-
ren "Labiaga" proiektuan.
Bertzean gainontzeko
ikastetxeak bildu ziren
"Toki Ona" proiektuan.

Geroztik "Labiaga"
borrokan dabil ez due-
lako bere proiektua le-
geztatzea lortzen. "Toki
Ona" k berriz ezin du be-
re eskeintza guztia mar-
txan jartzen ahal ez de-
lako nahiko ikasle kopu-
rurik elkartzen.

Gurasoen aldetik be-
rriz, hauxe ikusten dugu:
alde batetik "Labiaga"
eta "Toki Ona" proie-
ktuen artean aukeratzen
ahal izatea abantaila bat
dela guretzat. Bainon
bertze aldetik bi ikaste-
txe izate horrek desa-
bantailak ere ekartzen
dituela ikusten dugu: ez
dagoelako ikasle nahiko
elkartzen, ez ikastetxe
batean ezta bertzean,
baliabide batzuk es-
keintzen ahal izateko.
Adibidez:

- Nere seme/alaba
DBH2. mailan gaizki da-
bil, eta ez dut errepika-
tzea nahi. Ba, aukera bat
badago DBH3. maila be-
rezi bat sortzeko bera be-
zala dauden bertze ikas-
leekin, eta horrela ain-
tzinago gainontzekoen
martxa hartzen ahal izate-
teko.

- Gauza bera gerta-
tzen ahal da DBH4. mai-
lan: talde berezi bat sor-
tu ez gero titulua lortze-
ko aukera izanen luke.

- Ikasgai konkretu ba-
tzutan zailtasunak di-
tuzten ikasleek harreta
berezia jasotzen ahal izan-
nen zuten, ikasleen ko-
puru nahikoa balitz.

- Ikasleek urtero hau-
tatzen ahal dituzten au-
kerako ikasgaiak zaba-
lagoak izanen ziren, zen-
bat eta ikasle gehiago
izan.

... eta horrela bertze
baliabide gehiago, non
eta ikasle kopuru zaba-
la behar den martxan
eman ahal izateko.

Laburbilduz, azkene-
ko 10-12 urtetatik honat
gure zonaldean bi arazo
gelditu zaizkigu:

Bat: "Labiaga" proie-
ktuaren alde daudenen
borroka, eta hauek be-
ren proiektua aurrera ate-
ratzeko daukaten esku-
bidea.

Bi: Gure umeak ahal
bezain ongi atendituak
izatea dugun eskubidea,
eta hori oraingo egoera
banatu honetan ez da
lortzen. Ikasle guztiak el-
karturik heziketa hobe-
agoa izanen zutelako...
eta hori da nahi duguna:
baliabide guztiak hez-
kuntza hobeara batera-
ko.

Nola moldatu bi ara-
zo hauek? nola uztartu
bien arteko irtenbide
bat?; Ez ote da egoera
hau osotasun batetik har-
tu behar eta ez ikaste-
txe bakoitzaren intere-
setatik?; Ez ote dute ikas-
tetxeek haien artean mol-
daketa bat bilatu behar-
ko? (10-12 urte atzera
eginez); Gurasoek ka-
paz gara behar dugun
hori eskatzeaz?; He-
rrietako Udalek ere ez
ote dute zertxo bait la-
gutzen ahal?

Gure zonalde hone-
tan arazoak ditugu. Hitz
egin beharko ginuke
GUZTIENTZAT hobere-
na zer den bilatzeko. Bil-
du beharko ginateke. Ez-
tabaidatu beharko ginu-
ke. Guztiok arazoak di-
ra. Gurasoak, zer dio-
zue?...

Guraso batzuk.



Bidali ttipi-ttapa

herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastua ordaindu
behar da.

Eskatu informazioa

(+34) 948 635458

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra 2004-11-02

«Negar egin baldin badut ere edo haserretu baldin banaiz ere, edo izugarrizko atsekabeak hartu baldin baditut ere, inoiz ere ez dut etsi eta uztea pentsatu».

«Joan den urtean 50.000 lagunek bazkaldu edo afaldu zuten Beolan. 1998an Belateko tunelak inauguratu zirenean Espainiako Erregeak etorri ziren».

Alicia BIDEGAIN INDA
Almandozko Beolakoa.
2004ko Emakume
Enpresaria Saria.
D. Navarra 2004-10-20

«Nola izanen da errentagarria bada herriko alkate izatea, ez badugu soldatarik! Urtean ematen dizkiguten 500 euroekin ez dugu ezta telefonorako ere ateratzen, ezta joan-etorriak egiteko behar dugun gasolinarendako! Korporazio berria atera zenean herrietako juradoak hobeki egonen zirela erran zuten, baina ez dute ja ere egin».

Maribel SAN JOSE
Iruritako alkatea
D. Navarra 2004-11-03

• 11 GALDERA LABUR •

Bonboa eta txingak jotzen dituzu... kontua buila ateratzea da?

Buila ateri bidenabarkoan ongi pasatzea da helburua.

Musika banda eta txaranga... Seriotasuna eta juerga?

Bandan seriotasuna, baina baita juerga ere. Lesakako Txakain eta Doneztebeko Beti-Alai txarangen txaranga ere egiten dugu, baina lana egin behar denean, serio!

Hainbertze musikarekin, besta egiteko astia ateratzen duzu?

Beti ateratzen da tarte bat, bertzenaz ez ginen hain kontent biziko. Jotzen ere gozatzen duzu.

Musika jotzeko bestarik gogokoenak?

Aunitz: Doneztebe, Iruñeko Sanferminak, Amaiur, Arantza...

Musika mota eta talderik gustokoenak?

Bakailua ezik dena gustatzen zait, txarangatik heavy metalera, baina batez ere musika latinoa. Taldeen artean Extremoduro aipatuko nuen.

Besta egiteko, feria, iñauteriak edo Sanferminak?

Sanferminak, dudarik gabe.

Perkusioa jotzeko, solfeo jakitea beharrezkoa da?

Solfeoa ez da nahitaezkoa, baina izugarrizko aldea dago solfeo jakitea eta ez jakitearen artean. Perkusioan %50 solfeoa eta %50 inprobisazioa da.

Lesakako historia eta monumen-

toak erakusten ere ibili zara. Hainbertze ezagutzen duzu zure herria?
Ezagutzen dut zerbait, zaharrei aditu eta ikasi dietena. Aunitz gustatzen zait historia.

Zer aldatu da duela 500 urteko feriatik gaur egunekora?

Feria bera. Lehen herriari emandako sari bat zen eta gaur egun aziendak ekartzea anekdotikoa da, dena postuak eta juerga da.

Feria egunerako plana?

Goizean plazara joan, feria eta aizkolariak ikusi, bertsolariak aditu, bazkaldu, pilota partidua ikusi eta goiz etxera, biharamonean klasea dugu eta.

Musika eta kulturen aritua eta aditua... bertsolaritza alde batera utzi duzu?

Oraindik aritzen naiz bertso idatzietan, bertso antzerkietan eta gisako esperimenduetan. Nire frustrazioa da bertsolaritza, hagitx urduri jar-tzen nintzelako.



Egoitz TELLETXEA
Lesakako musikaria

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angelak	Erilaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandada' Mazkoa
Zahar antzekoa Txapeatua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**



Helbide berria:

Zalain auzoan,
Aceralia fabrikaren parean
© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333
BERA

**DROGUERIA
MOLINERO**
PINTURAK
DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guztiak

2.000 kolore
baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan
zuk nahi duzun **kolorea**
Profesionalentzat prezio berezia

IKASTAROAK

Negozio txikia administratzeko ikastaroa eskaintzen du Cedernak

Alkaiagako Enpresa Zentroan emanen da abenduaren 9tik 17ra

ttipi-ttapa

Cederna-Garalur elkarteak, ANELen lankidetzarekin, Negozio txikia administratzeko ikastaroa eskaintzen du. Fundanelek antolatu eta emanen duen ikastaro hori Cederna-Garalur Elkartek Nafarroako mendialdean dituen hiru Enpresa Zentroan emanen da, Arbizun, Izizen eta Lesakan. Lesakako Alkaiaga industrialdean, zehazki, abenduaren 9tik 17ra emanen da.

Beren lana sortu duten edo sortze bidean dauden, eta beren negozioa modu eraginkor eta autonomoan kudeatzeko prestakuntza gehiago behar duten pertsonen zuzenduta dago bereziki prestakuntza-ekintza hori. Hala ere, zerbitzu-kalitatearen, administrazioaren eta finantza eta kontabilitate kudeaketaren arloan oinarritzeko ezagutzak eskuratu nahi dituen edonork egin dezake.



ARGAZKIA: ONDIKOL

EHNEk behi gasnagintza ikastaroa egin du Anizen

EHNE sindikatuak antolatutako behi gasnagintza ikastaroan hamazazpi abeltzain eta gasnagilek parte hartu dute. Ikastaroa. Kantabriako behi gasnagintza aditua den Paco Fernandez kantabriarrak eman zuen Anizko Jauregian urriaren 25etik azaroaren 5era eta ikastaroa akitzeko, otordu baten inguruan bildu ziren partehartzaile guztiak.

Ikastaroa lau modulan banatuta dago: zerbitzuen kalitatea, kontabilitatea, finantza-kudeaketa eta zerga-arloa. Ikastaroan izena emateko kuota 50 eurokoa da, eta partaide-

ak izen-ematearen ordea zorrotzean onartuko dira, gehienez ere 20 lagunek har baitzakete parte.

Prestakuntza-ekintza honetan interesa duten ikastaroa jasoko

duen Enpresa Zentroarekin jar daitezke harremanetan. Horretarako, Lesakako Bidasoa Enpresa Zentroaren 948 625122 telefonora deitzen ahal da (Begoña Iparragirre).

BERTIZ

Ehizari buruzko gastronomia jardunaldiak azaroan 13 jatetxetan

ttipi-ttapa

Bertizko Turismo Partzuergoak hamabigarren aldiz antolatutako Ehizari buruzko Jardunaldi Gastronomikoak egingen dira azaroaren 28a bitarte Baztan, Malerreka eta Bortzirietako 13 jatetxetan. Almandozko Beolan, Arantzako Aterpe eta Burladan, Berako Zailainen, Donamariako Bentan, Doneztebeko Ameztian, Elgorriagako Hilarionen, Elbeteko Oñaskan, Elizondoko Eskisaroan, Igantziko La Villa eta Igantzin eta Lesakako Kasino eta Koxkontan uso, basurde, orein, erbi edo oilagorrez osatutako menuak dastatzeko modua izanen da, betiko moduan edo era berrietan eginak, 16 eta 32 euro bitarteko menuetan. Dena den, jatetxe guztiek beraien ohiko karta eta zerbitzuak ere eskainiko dituzte.

Alzuri

Sukalde tresneria eta opariak
Landare eta loreak

Tfnoa: 948 630 370
BERA

KATER-BIKE

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

bortzirUDI
BERA

KARTELAK
KAMISETAK
BISERAK
TXISKEROAK

NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINURAKIN
Eztegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

ZJ
Zalain
jatetxea
Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

1º. SARRAIA 10 • Tel: 948 63 29 47
Bera • Nafarroa

BERA

Ibardingo gasolindegia gizarte intereseko izendatu du Udalak

Irabaziak azpiegitura eta zerbitzuen hobekuntzarako erabiliko dira

Amaia eta Ainhoa

Udalak egindako azken batzarrean, Ibardingo Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkartek eskatuta, Ibardin enaiki nahi duten gasolindegia zen zerbitzua gizarte intereseko deklaratzeari onartu du, baldin eta zerbitzu-gune honetatik datozen irabaziak azpiegitura eta zerbitzuen hobekuntza eta mantenimendu lanak ordaintzeko erabiltzen badira. Horrela gaur egungo azpiegituren gabeziak hobetuko dira Bera eta bertako bizilagunentzat garapen eta dinamismo sozioekonomiko eta laborala bermatuz. Aipatu funtzio hau betetzen ez den unetik, Gizarte Intereseko deklarazioak bere efektu guztiak galduko ditu. Gasolindegia udalaren lurzorua izanik, herriak azpiegitura honetatik aterako diren irabazietatik kopuru proporzionala jasoko du, udalarentzako urteroko diru sarrera zuzena iza-



Ertzeko borts urte

Azaroaren 26tik 28ra, ERTZ Arte Guneak antolatuta, Ertzen 5. urteurrena ospatzeko, Pablo Lasa eta Ertzen Soinu Instalazioa ikusi ahal izanen da Kultur Etxean. Ortziralan, 20:00etatik 22:00etara eta larunbata eta igandean 16:00etatik 22:00etara zabalik egonen da.

nik, eta aldi berean, udal lurzorua jabetza hori ez du galduko. Erabaki hau hartzeko orduan, Aralarrek ez du aldeko botua eman. Zinegotziek ez dute gasolindegia oztopatu nahi baina ez daude ados hirigintza arloan gauzak egiten ari diren moduarekin, beste herritarrei

exigitzen zaiena ez baitzaie exigitzen ari. Gainera Aralarrek dioenez, ez da oraindik komenioa sinatu eta komertziantek zerbitzu-gunea laister idekiko dela iragaritzen ari omen dira. EArentzat aldiz, hirigintza-rena eta gizarte intereseko izendatzearena bi gai desberdin dira eta

Ibardingo komertziantekin egindako azken bilkuran aipatu omen zitzaizen baimen guztiak eskatzeko. Gainera, EAK dio gasolindegia gizarte interesekoa dela onura guztiak azpiegitura eta zerbitzutarako erabiliko direlako. Herrialdek ere aldeko botua eman zuen.

FLASH

Liburutegia itxia

Berako liburutegia, mokatze lanak direla eta, itxia egonen da azaroaren 8tik aintzinerara obra bukatu arte.

Elikadura, dietetika eta sukaldaritza ikastaro-tailerra

Lamixine BATEk, Berako Gizarte Gaietarako Batzordearen laguntzarekin, Elikadura, dietetika eta sukaldaritza ikastaro-tailerra antolatu du. Azaroaren 16ean hasi da eta otsailaren 8a arte luzatuko da. Jone Arrospide izanen da irakaslea eta aste-artero lamotenean izanen da 15:00etatik 17:00etara. Izena ematea 012an egin daiteke edo 948217012 telefonora deituz. Prezioa 40 euro izanen da.

Irudi korporatibo berria

Udalak irudi korporatibo berria egitea erabaki du eta horretarako herriko diseinatzaile bati, Gorka Ibargoini, lan hori egitea eskatu dio. Beraz, behin diseinua bukatuta Udala konforme bada, Herriko Etxeko idatzi, kartazal eta bertze hainbat tokitan irudi korporatibo berria ikusi ahal izanen da.

Soziolinguistika jardunaldiak

Bidasoa Ikerketa Zentroak, aurtengoan "Nafarroan euskeraz idaztea" gaia jorratzeko asmoarekin, V. Soziolinguistika Jardunaldiak antolatu ditu. Azaroaren 19an Juanjo Olasagarrere eta Castillo Suarez eta azaroaren 26an Mikel Taberna eta Jon Abril beratarak arituko dira, lamotenean 18:30etan.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

BAR Botxo OSTATU
© 948630052 • Zalaia • BERA

tapi tapa
© 948 63 54 58

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

AIZOA
OSTATU JATETZEA
Bera - Tfnoa: 948 631 155

Itxita
azaroaren 12tik 30era
(biak barne)
Barkatu eragozpenak

LESAKA

Sukaldaritza eta irrati ikastaroak antolatu ditu Herri Eskolak

Azaroaren 27an egingen da Bortzirietako Gazteen Bai Euskarari Eguna

Aitor AROTZENA

Herri Eskolak bi ikastaro antolatu ditu udazken honetarako. Sukaldaritza ikastaroa antolatu du Herri Eskolak Udalaren laguntzarekin. Kasinoko Imanol Elizalde izanen da irakaslea eta asteazken honetan, azaroak 17, hasita, bi orduko hamabi saio egingen dira.

Bertze aldetik, irratia saio bat nola egingen den ikasteko aukera eskaini du Xorroxin Irratiarekin batera eta Udalaren laguntzaz. Azaroaren 20an hasita lau orduko hiru saio egingen dira. Atxaspi ostatuan eman behar da izena azaroaren 18a baino lehen, horretarako 5 euro ordainduta.

Bortzirietako Gazteen Bai Euskarari Eguna azaroaren 27an

Azaroaren 27an Lesakan egingen da Bortzirietako Gazteen Bai Euskarari Eguna. Bera-



ARGAZKIA: AITOR

Arkupe elkartearen txapelketen finalak.

Urriaren 30ean jokatu ziren Arkupe elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta-goma eta gizasemeen pala-motza txapelketen finalak. Emakumeen artean, Lizarrako bi bikote ailegatu ziren finalera eta Mari Paz eta Susanak 30 eta 24 irabazi zieten Asun eta Maiteri. Final honen maila nabarmentzeko aipatu behar da bi atzelariak, Susana Muneta eta Maite Ruiz, Munduko txapelkunak izanak direla. Pala motzean, Iruñeko Urriza eta Manexek 40 eta 37 irabazi zieten Oiartzungo Antxin eta Ormaetxeari.

ko Gazte Asanbladak, Lesakako Gaztik, Arantzako Gazte Asanbladak, Etxalar eta Igantzikoko gazteek eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako ekitaldi honetan,

gazte jokuak egingen dira goiz eta arratsalde. Goizean herriko antolatutako dira neska eta mutilen osatutako taldeak eta joku ezberdinak egin ondotik, gisadu txapelketa egingen da. Bazka-

london jokuekin segituko dute eta eguna borobiltzeko kontzertua izanen da. Ekitaldi honen Bortzirietako gazteek Bai Euskarari akordioari euren atxikimendua adieraziko diote.

FLASH

Aginako IX. Auto Lasterketa azaroaren 20an

Larunbat honetan egingen da Eguzki Sport eskuderiak antolatutako IX. Rallysprint Aginako auto lasterketa. Proba arratsaldean egingen bada ere, goizetik adituko dira motor burrunbak herrian eta Aginako errepidea itxia egonen da.

Santa Zezilia Eguna

Musikariek azaroaren 22an ospatuko dute beraien zaindariaren eguna. Astelehen horretan, musika eskolak kontzertua eskainiko du Herriko Etxean 18:00etan. Ondotik, musika bandak ere bere emanaldia eskainiko du. Azaroaren 27an, berriz, musika bandak, txistulariek, akordeoilariek eta trikitilariek kalejira egingen dute arratsaldean eta elkarrekin afalduko dute.

Elikadurari buruzko jardunaldia

Azaroaren 26an elikadurari buruzko jardunaldia egingen da, Elaiak antolatuta. 16:30etan mahaingurua egingen da Kasinoan. 19:30etan «Chocolate» filmea eskainiko da eta gero Malkorrako txokolatea banatuko da, aparkalekuan jarriko den karpan.

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

BOBKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

ANA
Bittoria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zabala
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

Carpintería Uranga, s.l.

- **MOLDAKETA, ERREFORMA eta ERAIKUNTZA** mota guztiak egingen dira.
- **ATEAK eta LEIHOAK.** Korrederak eta finkoak.
- **ZOLAK:** Tarimak eta parketak
- **ALTZARIAK:** Enpotratuak eta neurritan eginak.

Otsango industrialdea • Tel.-Faxa: 948 637715 - Mug.: 696 479698 • LESAKA

ETXALAR

80 urteko zazpi lagun omenduko ditu Larraburua elkarteak abenduaren 3an

Mus eta partxis txapelketak ere hasi dituzte bertze urte batez

Joseba eta Nerea

Urtero bezala "Jubilatuena Eguna" ospatu-ko dute Larraburua elkartean heldu den abenduaren 3an. San Francisco Jabier eguneko besta aprobetxatuz, 80 urteko 7 kide omenduko dituzte aurten. Zamateluko Feliciano Arburua, Iguzkiagerreako Maria Isabel Arribillaga, Armitzeko M^a Carmen Zubieta Aldaitegiko Asuncion Arburua, Garxieneko Manuel Bizente, Juliana Etxeberria eta Domekeneko Bordako Aureliano Ameztotz dira Jubilatuen Egunean eginen den bestaren barrenean elkar-teen omenaldi xumea hartuko dutenak. Bazkari ederraren bueltan bilduko dira 70 bat lagun eta ondotik oroigarriak banatuko zaizkie 80 urteko zazpi lagunei. Ramontxoren eskutik dantzaldia izanen dute bestarekin akabatzeko. Lerro hauen bidez zorionak omenduei eta aunitz urtez!



ARTXIBOKOA

Argazkian, joan den urteko mus eta partxis txapelketetako finalistak eta bertze partehartzaile batzuk ageri dira.

Mus eta partxis txapelketak martxan

Urtetako ohitura mantenduz, martxandago aurten ere Larraburua mus eta partxis txapelketa. Joan den igande-ean hasi ziren musekoak eta Jabier Indaburu antolatzaileak erran digunez "16 bikotek hartuko dugu parte aurten. Bi taldetan ba-

natu gara eta igandero jokatuko ditugu partidak. Talde bakoitzeko irabazleek urte berri egunean jokatu dute finala eta sari-banaketa errege egunean egiten dugu". Martxa bera segituko dute partxisekoek baina aurten berrikuntza bat izanen dute erran digu Birjina Arburuaak. "Aurten emakumeak bakarrik aritu-

ko gara. Orain arte gizonak aritzen ziren bikoteak osatzeko baina aurten 12 lagun bildu garenaz 6 bikote juntatzea lortu dugu". Igande arratsaldetan jokatuko dituzte partidak partxiseko emakumeek eta 5 astez luzatuko dute txapelketa. Sari-banaketa denek elkarrekin egiten dute heldu den urtarilaren 6an.

FLASH

48 lagun uso-jatean

Bospasei urte badituzte Larraburua klubak jubilatuek urri hondarrean uso-jatea egiten dutela eta aurten ere ez zuten hutsik egin. 48 lagun bildu ziren urriaren 31n elkartean bertan egin zuten bazkarian. Umoreak eta giro ederrak ez zuten hutsik egin.

Sukaldaritza ikastaroa ere martxan

Larraburua klubak kontuekin akabatzeko, sukaldaritza ikastaroa aipatuko dugu. Joan den astean hasi zuten Herriko Ostatuoko Iñaki Pikabea sukaldariak ematen duen ikastaroa. 20 lagun bitzen dira asteartero Larraburuan gisa guzietako jakiak prestatzen ikasteko.

Mendiko ote eta zikinen erretzea

Mendiko oteak eta zikinak erretzea pentsatu duten guziek erreketak haurtzako baimen eskaerak Udal-Idazkari-tzan aurkeztu behar dituzte Nafarroako Gobernuan tramitatzeko. Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 15a da. Erran behar da erabat debekatuak daudela baimenik gabeko erreketak, hagitz arrisku-tsua direlako.

HERRIKO
OSTATU • JATEKOA

Arretxena 10 • 948 631 284
Txar • NAFARRA

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

JAKO - GAZTEKIA

Altzate, 19 • 948 630 786 • BERA

LAZAR

© 948 631 076 • BERA

Borda

Pladur lanak

• ENHIEPONIAI
• GEFORAZIOA
• ISOLAMIENTUAK
• LUBRIKAZIOAK

Tel-Fax: 948 637 546 • 609 477 277
Salgarritan

IGANTZI

«Artzaintza Igantziarrentzat» izanen da abenduaren 8ko bestaren gaia

Albinte berria kontratatzeko
lehenbiziko pausuak ematen ari
da Udalbatza

Oskar TXOPERENA

Biltoki Elkarteak antolatzen duen abenduaren 8ko bestak ematen dio, urtero bezala, akabila Igantziko Kultur Egunei. Egun hauetako egitarau osoa hurrengo alean aipatzeko aukera izanen dugu, baina oraingoan, jendeak prestatzeko eta behar bada parte hartzeko aukera izan dezan abenduaren 8ko bestaren berri ematen dugu. Orain bi urte "Igantziko saskigileak" eta iaz "Kirola Igantzin" izan ziren egun honetako gaiak. Aurten goa, erran bezala, "Artzaintza igantziarrentzat" izanen da. Oraindik zenbait ekitaldi lotzeko omen daukate, baina bistakoa den bezala eguna ardia eta artzaier inguruko gaiekin

betetzeko asmoa daukate. Gazta lehiaketa egingen da, kaikugile bat ere lanean paratzeko asmoa dago eta erakusketa ttiki bat ere izanen omen da. Arratsalde edo ilunabarrean, berri, taloak, gazta eta sagardoa izane da hurbiltzen den guzientzat. Orain arte prestatu dituzten ekitaldiak ikusita, dudarik ez egin egun ederra izanen dela.

Albintea

Aspaldidanik komentatzen da herrian albintearen beharra badela. Kruzito Ariztegi jubilatutako zenez geroztik urteak joan dira albinterik gabe dago Igantzi. Bada, joan den ortzira leian egindako hilabete bakoitzeko onartzeko zuten Udalbatzak albin-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Ardi, artzaier eta zakurrek harreman handia dute Igantzirekin argazkian ikusten ahal den ekitaldiaren bitartez. Biltoki Elkarteak gai horretan gehiago sakonduko abenduaren 8ko bestan.

te berria kontratatzeko deialdia. Prozesu luze baten hasiera bertzerik ez da, baina litekeena da 2005ko hasieran aurkeztzen diren lagun guzientzat arteko probak egitea eta uda aldera dagoeneko albinte berria lanean hasia izatea.

Baratzondo Elkarte

Igantziko Jubilatuen Elkarte ere ari da poliki-poliki bere mus eta



partxis txapelketa akautzen. Heldu den astean jokatuko dituzte finalak eta abenduaren 3an izanen dute besta eta bazkariaren ondoren banatuko dituzte txapelketako sariak. Bazkaltzera joan nahi duenak aste honetako larunbata, azaroaren 20a, izanen du izena emateko azken eguna. Ondotik ematen dugu txapelketaren emaitzen berri.

Xorroxin Irratia Eskolan

Igantziko Eskolarekin duen urteroko hitzordua beteko du heldu den astean Xorroxin Irratiak. Azaroaren 22, 23 eta 24ean izanen dira irratsaioak, 107,8 FM frekuentzian oker ez bagaude. Ordutegia da aurten aldatu egin dena. Orain arte gehienetan goizetan izaten zen irratsaioa, baina aurten 14:30tik 16:00ak arte izanen da 22 eta 23an, eta 24angoizetako 11:15tik 12:50ak arte. Herritarrek ere eurekin aritzeko zenbait lehiaketa prestatzen dituztenez, adiegon eta deitu!

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS S.A.

Igantziko Bentak
☎ 948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

ZUBIONDO JATETXEA



Iriarte-Echandi, S.I.

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

ARANTZA

Udazkeneko Kulturaldia arrakastatsua izan da aurten ere

Baserritarren Egunean herriko hogeita hamasei postu izan ziren

Nerea ALTZURI

Udazkeneko Kulturaldia urriaren 30ean abiatu zen. Dozenaka ume eta gurasok Gorringo taldearen antzezlanarekin eta beranduarekin gozatuz, larunbat arratsalde gozagarria pasatu zuten. Biharamon arratsaldetan, berriz, harrijaso-tzaileek eta aizkolariek emanaldia eskaini zuten, gainezka ageri zen frontoian. Arratsean mus txapelketak izan ziren elkartean. Gazte-txoek eta helduek mus jokoa egin zituzten.

Azaroaren 1ean, bederatzigarren baserritarren Eguna izan zen Ekaitza elkartaren ekimenez. Arrakastatsua izan zen eguna, borbila dudarik gabe. Frontoia eta plazaren gunek baserriko produktuz,

aziendaz, tresna zaharrez, lorez, gozokiz, taloz, eskulanez, arropaz... hornituak izan ziren. Guzira 36 postu paratu zituzten arantzarek: Errefelenborda, Ilargi okindegia, Zapatabaita, Fermin Elizondo, Mendialde, Bidegain, Toanekoborda, Martisenea, Bixentiko Arozena, Toki-Ona institutua, Serorinborda, Bortzak Bat kooperatiba, Belen Mutuberria, Jesus Mari Madariaga, Larrainekoborda, Senberro, Barrazabal, Urdingoborda, Panttaleon Errandonea, Inddurtzain, Luis Madariaga, Adaxka, Txanekoborda, Maroñenborda, eskulana, Otsarra, Gazte Asanblada, Martisenekoborda, Felix Apezetxea, Simonea, Errenea, Eskerreneko-



ARGAZKIA: JOXE RAMON AMOROS

Hainbat azienda izan ziren Baserritarren Egunean. Herri kirol saioa ikustera ere herritar aunitz hurbildu zen frontoira.

borda eta Inddurrenea. Herriko trikitilariak ere emanaldia egin zuten eta Jon Martin eta Xabier Zeberio bertsolarien emanaldia ere izan zen frontoian. Ondotik,

bertako produktuez bertako zarea zozketatu zen eta Xabier Mayor-domo gazteari egokitu zitzaion. Nafarroako Kutzak entziklopedia zozketatu zuen parte hartu

eginez, 400 lagunek elgarrekin bazakaldu zuten Ibarungo Inharrea baserrian. Gaurko dantzariak asmatu duten sorkuntza erakutsi zuten hogoita bortzgarren urtebetetze huntan. Orain arte, betiko dantzak ematen ziren baina orain sorkuntzaren atea ireki dute gazteek. Zirikolatzek etorkizun aberatsa du beraz bere aintzinean... Urtebetetze eder huntan ideia ainitz sortu omen da eta bortz urteen buruan halako besta berriz egitea aipatu da.

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zalein, s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
A G E N T Z I A

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tiñoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ONASKA
ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

AZKAIN

Xara Baita lotizamenduaren zatien salmenta bozkatu dute herriko hautetsiek

Hemezortzi zati partikularrei eta zati haundi bat Colugny SCIri

Angela eta Xamo

Betidanik, Herriko Etxeak bizileku etorkizunaren arazoa bere gain hartzen du, herri-tareri lotizamenduak proposatuz. Duela guti, aipatzen ginuen bi proiektu berri ari zirela muntatzen. Gaur egun, proiektu horiek zehazten ari dira. Gan den urriaren 27an, herriko hautetsiek Xara baita lotizamenduaren zatien salmenta bozkatu dute: 18 zati herriko partikularieri, bertze zati lodi bat (3892 m²) Coligny Sci-ri. Erakunde horrek 29 apartamendu eraikiko ditu, denak sozial bizilekuari begiratuz.

Bilkura hontan, hautetsiek lurra zatitzeko baimenaren galdera bozkatu dute ere, Uhaldeko Borda lotizamen- du berriarentzat. 21 za- ti izanen dira herritare-

entzat, eta Xara baitan bezala, sozial bizilekuari ere puxka bat atxikiko diote.

Bainan hautetsiek ez tira hortan egonen. Pentsatzen ari dira herriko komisione berri bat muntatzea. Komisione horren lana: lurraren xer- katzea, lotizamenduak sortarazteko. Badakigu lana hori beharrezkoa izanen dela heldu diren urteetan, gazteen bizi- lekuaren galdera guziak betetzeko.

Mus txapelketa

Urriaren 30 ean, Gemuku elkarteak mus lehiaketa bat antolatu du Kirol ostatuan.

Orotara, 32 bikote ari- tu dira. Jolimon eta La- duche-k irabazleak izan dira Mikel Berazaluze eta Agnes Karrikaburu- ren kontra. Jokalariak eta ikusleak gaztainak



Xara baita lotizamendua.



Mus txapelketa.

dastatzen ahal zuten, momentu berean. Gaua berant bukatu da irabazle eta antolatzaile- entzat.

Le Théâtre du Petit Pain

Orduan eta Gemuku el-

karteek Le Théâtre du Petit Pain etor arazi nahi zuten azaroan, heien az- ken ikusgarria "Le Pic du Bossu" emaiteko. Le- ku arazo baten gaitik, Ezpeletan eginen da, azaroaren 21 ean larun- batarekin, bainan Or-

duan eta Gemuku el- karteek antolatzaileak gelditzen dira. Antzerki honek 2 ordu eta erdi iraunen du, ordu laur- deneko geldialdi bate- kin. Ostatu bat eta talo batzu proposatuak iza- nen dira han bertan.

ZOANSA

SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

bentamiguel

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Ibardingo Lepoa • 948 631209

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
948 599 131 - URDAZUBI

SOULE
Hileta artea

948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

SARA

ELB laborantza sindikataren besta iragan da azaroaren 7an

Euskal kantu kurtsoak hasi dira, Filipe Gerard eta Maider Olassok antolaturik

Saski eta Laetitia


Euskal Laborarien Batasuna (ELB), 1984an sortua, bere 22 urte ospatu ditu Sarako polikiroldegian azaroaren 7an. Aurten, beren mintzaldietan ateratu den gai nagusia Euskal herriko laborantza ganbara bat sortzea izan da.

Eguna hasi da zintzur bustitze batekin eta gero jendea elkarretaratu da bazkari goxo baten inguruan. Ondotik, Sindikataren kide bat hitza hartu du, beren proiektuak aipatuz eta euskal laborarien egoera txarra azpirramarratuz.

Arratsalde bukaeran, Anje Duhaldek kontzertu bat eman du jendeak alaitzeko eta Itsasuko Holako taldeak egun xarmant hori bururatu dute dantzaldi batekin.

Euskal kantuak

Duela orain bi aste hasi dira gazteen etxean kantu kurtsoak Filipe Gerard eta Maider Olassok antolaturik. Idei hori sortu da ikusi dute-



Itsasuko Holako taldea ELB ko bestan

larik Saran ainitz jendek maite zuela kantatzea bainan azken finean, hitzak laster falta zirela. Hortarako, gomitatzen dituzte saratar guztiak, baita inguruko herritarak ere astelehenetan 20:30etan gazteen etxean zahar kantuak berriz ikasten. Beren helburua ez da talde baten sortzea bainan euskal giro hori denen artean berreskuratzea. Informazio gehiago: 0665255071 zenbakian.

Kirola

Azaroaren 7an errugbiko mutikoek Saran jokatu dute Litemix

landestarren kontra. Lehen zati txarra eginez atsedenaldira iritsi dira 6-14 galduz. Bigarren zatian beren jokoa hobetu dute eta matxa beren kontura hartu dute irabaziz 19-14. Sarararak lehen postuetan sailkatuak dira.

Bertze talde bat martxan dugu aurten: Urtxintxak eskubaloiko neskak. Azaroaren 6an Saran Baionako taldearen kontra nagusitu dira 28 eta 12 partidu eder baten jokatu. Beren jokoa gero eta gehiago hobetzen ari dira eta agian aurten ere urrun joanen dira txapelketan.

URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

Trafiko arazo handiak izan ziren Domini Saindu bezperan

Margari eta Koro

Domini Sainduko bezperako igandean trafikoko arazo handiak izan genituen. Azaroaren 1ean mugako bi aldeetan besta izateak sekulako jende aldea mugituarazi zuen gure zonalde honetan. Alde batetik Dantxarinean zirkulazioa kolapsatu zen eta Ainhua-Sara aldera joan behar zutenek Zugarramurdi gurutzatuz desbideratu zituzten, eta horrek herrian kotxe leerro haundiak sortu zituen. Bertzalde, gure bi herriak espreski bisitazera etorri zirenak ere aunitz izan ziren (egun horretan 800 lagun sartu ziren Zugarramurdi-ko lezeetan) eta apartakalekuak ere gaindizka zeuden, bai Zugarramurdi-koak, baita Urdazubiko lezeetakoak ere.

Kanposantua

Domini Sainduko egunerako gure kanposantuak ahal bezain pollit eta garbi paratzen saiatzen garela-eta, aur-

ten Zugarramurdi-ko Herriko Etxeak ere hortan bere lana egin du: kanposantua inguratzen duen pareta txurituz eta harriak kartxerakin ongi garbituz.

Sendotzak

Azaroaren 7an sendotzak (konfirmazioenak) izan ziren Urdazubiko elizan. 16-17 urteko zortzi gazte sendotu ziren, guztiak urdazubiarrak (urte horietan Zugarramurdi jaiotza krisi handian sartua zegoen).

Labur-labur

- Urdazubiko Jose Miguel Mihura Castro eta Zugarramurdi-ko Virginia Irazoki Arburua izendatuak izan dire Nafarroan "Jurado popular" bezala aritzeko.

- Urriaren erdi aldera aerobik ikastaroa hasi zuten bi herrietako 33 lagunek, "Azketa" pilotalekuan.

- Euskal dantza ikastaro bat antolatzeko bilera egin zen azaroaren 7an.




Importaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ORDOKI LIKOREAK

ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako
haragi eta
arrainak





EZKONTZAK

Jesus David Fernandez Arruabarren eta **Maria Estrella Bidegain Zubiri**, Alman-doz eta Arizkungoa, urriaren 9an.

Joseba Koldo Alduntzin Agirre eta **Ain-hoa Arrizurieta Perurena**, Leitzakoak, urriaren 23an.

Noe Buldain Mariezkurrena eta **Amaia Alduntzin Estanga**, Leitzakoak, uztaila-ren 24an.

Miguel Angel Serrador del Caño eta **Ain-hoa Abuin Ramon**, Irungoak Lesakan, urriaren 30ean.

Xabier Gomez Rodriguez eta **Amaia Ariz-tegi Igoa**, Lesakakoak, uztailaren 31n.

Francisco Javier Uitzi Lopez eta **Ana Blanca Rodriguez Ruiz**, Irun eta Gas-teizkoa, Beran, azaroaren 6an.



SORTZEAK

Jokin Erasun Mendikoa, Beintza-La-baiengoa, urriaren 4an.

Maddi Bakero Arakama, Irungoa, urria-ren 27an.

Markel Adin Bidegain, Arizkungoa, urria-ren 23an.

Ander Zelaieta Goñi, Elizondokoa, urria-ren 27an.

Eneko Olaizola Murillo, Arraiozkoa, urria-ren 28an.

Eider Elizalde Indakoetxea, Zubietakoa, irailaren 27an.

Lutxi Iribarren, Sarakoa, urriaren 29an.

Mikel Prieto Etxegarai, Berakoa, urria-ren 23an.

Joana Da Silva Almeida, Berakoa, urria-ren 28an.



HERIOTZAK

Francisca Etxeberria Irigoien, Sunbilla-koa, urriaren 26an, 84 urte.

Maria Agerralde Etxekolanea, Dona-mariakoa, urriaren 28an, 94 urte.

Trinidad Bertiz Etxeberria, Doneztebe-koa, urriaren 28an, 89 urte.

Victor Oteiza Iturralde, Iruritakoa, urria-ren 29an, 69 urte.

Asuncion Mendiburu Iturriria, Narbar-tekoa, urriaren 31n, 96 urte.

Jose Maria Berrueta Zubieta, Etxalar-koa, urriaren 31n, 83 urte.

Amalia Sansiñena Telletxea, Arantza-koa, azaroaren 4an, 81 urte.

Jose Manuel Jorajuria Etxepeteleku, Doneztebekoa, azaroaren 7an, 52 urte.

Julien Guiltzu, Sarakoa, azaroaren 5ean, 80 urte.

Marie Olano, Sarakoa, azaroaren 7an, 90 urte.

Fernande de Meyer, Sarakoa, azaroaren 2an, 96 urte.



Jose Mari BERRUETA ZUBIETA

**Etxalarren hil zen 2004ko
urriaren 31n, 83 urte zituela.**

*Egun batez joan zinen
zu gure ondotikan
oroitzapen faltarik hemen
ez da geroztikan
jarraitu nahi genuke guk
bide horretatik
Zorionean itxaron gaitzazu
aita zuk zerutikan.*

ZURE FAMILIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

PILOTA

Bortzirietako eskuz binakako txapelketa azaroaren 20an erabakiko da Lesakan

Hurrengo igandean hasiko da banakako txapelketa ere

Oskar TXOPERENA

Heldu den larunbatean, azaroaren 20an, jokatuko dira Lesakan Bortzirietako Binakako IV. Txapelketaren finalak. Ailegatu da, beraz, hilabete pare bat iraun duen lehiari akabila emateko ordua. Bortzirietako herriek txandaka antolatu ohi dituzte finalak, eta azkeneko banakakoak Beran jokatuko zirenez, aurtengoa Lesakari egokitu zaio

binakako ekitaldia hartzea.

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka, Hondarribia, Irun eta Hendaia 132 pilotari aritu dira astero-astero eskualdeko pilotalekuan banatuta, 6 urte inguruko ttikienetatik hasi eta 15 urteko kadeteak arte banatutako mailetan: ttikiak, umeak, kimuak, haurrak eta kadeteak. Maila horiek, kadeteak izan ezik, bi azpimailatan daude banatuak gai-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka, Hondarribia, Irun eta Hendaia 132 pilotari aritu dira binakako txapelketan.

nera, A eta B, parte-hartzea bultzatu eta konpetizioa ahalik eta berdina izan dadin ahalbidetzeko.

Bortzirietako Pilota Elkartek antolatzen duen txapelketaren final hauek 9:30etan hasiko dira ttikiak B mailako finalarekin eta eguerdia

izanen aisa 9 partidak akautzen direnerako. Ondotik sari banaketa izanen da, bai finalak jokatzen dituzten pilotarietzat eta baita parte hartu duten guzientzat ere. Urtero bezala, txapelketari akabila emateko elkarrekin bazkalduko dute pilotari, guraso,

Udal ordezkari eta antolatzaileek.

Bertzalde, atsedetik hartu gabe, hurrengo igandean hasiko dira Banakako Txapelketaren partidak. Hilbeltzaren ondarrera arte irauten du eta oraingoz Bortzirietako pilotariak bertzerik ez dute jokatzen.

ESKUBALOIA

Denboraldiko lehen garaipena lortu dute BKT taldeko neskek

Gero eta hobeki ari dira Lehen Maila Nazionalen

Urriko azken aste hondarrean denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen emakumeen eskubaloiko lehen maila nazionalen jokatzen duen Magna Baztango Kirol Taldea Maderas Azkona taldeak. Kataluniako Gavá taldeari 24 eta 27 irabazi zion bere kanta

zailean. Partida horretan, baztandarren azken fitxaketa, Lucia Parini atezain nabarmendu zen. Atezain hau eta Magnesitas de Navarra taldearen babesle berria aurkezteko prentsaurrekoa egin zen azaroaren 10ean.

Joxe Iturzaeta entrenatzaileak, Enrique



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Magna laguntzaile berriaren eta Lucia Parini atezainaren aurkezpenean egin zuten Baztango Kirol Taldeak azaroaren 10ean.

Petirena dauka laguntzaile. Beraien errantara, Edurne Subiza, Enea Arretxea eta Lucia Parini atezainak, eta izaskun Danboriena,

Alaitz Urrea, Miren Lataza, Mai Morales, Itziar Jaen, Maria Gaztelupe, Totu Iturzaeta, Karmele Sanz, Elisa Arretxea, Ainara Unanua, Andrea

Rodriguez, Itziar Irigoien, Irati Berruezo, Desiree Vinagre, Amaia Garcia, Garazi Arretxea eta Ane Alberro jokalaria ari dira aurtan.

HERRI KIROLA

Nafarroako aizkolari txapelketaren finala azaroaren 19an egingen da

Arratsaldeko 5:30etan hasiko da saioa Doneztebeko udal pilotalekuan

A.A.

Ortziral honetan, azaroak 19, Doneztebeko feria egunaren barnean jokatu da Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finala. Bertan izanen dira Floren Nazabal, Donato Larretxea, Daniel Bizente, Jose Juan Barberena eta Juan Jose Lopez. Etxarri-Aranazen urriaren 3an egindako sailkapen saioan beraiek eskuratu zituzten finala jokatzeako eskubidea ematen zuten bortz txartelak. Hutsune nabarmena izanen da aurtengo finalean. Mikel Mindegia beteranoa ez da finalean izanen, ez erretiratu delakoz, kanporaketa saioan eri zelakoz baizik eta horren mediku ziurtagiria aurkeztu zuen. Antonio Jau-



Aizkora denboraldia nola joan den ikusita, Floren Nazabal izanen da aurtengo Nafarroako txapela janzteko faborito nagusia.

narena ere erixko zegoen aste osoan, baina azkenean kanporaketara agertzea erabaki

zuen eta azken postuan sailkatu zen.

Doneztebeko finala 17:30etan hasiko da eta

aizkolari bakoitzak lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu beharko ditu.

TXIRRINDULARITZA



Jon Bru beratarrak Portugaletik Kaikura

Jon Bru txirrindulari beratarrak Nafarroako talde batean profesio-nalean aritzeko aukera izanen du. Orain arte Portugaleko La Peco taldean ari zen, baina azaroaren 9an aurkezpena egin zuen Kaiku talde nafarrak aukera eskaini dio etxetik hurbilago profesio-nalean aritzeko. Hau idazterakoan, Patxi Vila Lampreren deia zain zegoen.

FUTBOLA

Ane Bergara beratarrak hemeretzi urtez behe-tik Munduko txapelketan

Thailandian hasia da txapelketa

Duela pare bat hilabete Europako 19 urtez behe-tik futbol txapelketa irabazi zuen Espainiako selekzioarekin Ane Bergara, 17 urteko futbolari beratarrak. Orain, Thailandian hasia den Munduko futbol txapelketan ari da. Lehenbiziko faseko lehen partida azaroaren 11n jokatu zuten Errusiaren kontra, 14an Korearen kontra aritu ziren eta 18an talde gogorrenaren kontra, Estatu Batuen kontra aritzekoak dira. Aitzinera egiteko mul-tzoko lehen bi postuetako batean sailkatu behar da Espainiako selekzioa eta horren itxaropena bazuen Ane Bergarak.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Ane Bergara kontent, Tailandiara joan aitzinetik.

AGENDA
egunez
egun**ZINEMA****BEINTZA-LABAIEN**

Azaroaren 20an «Emil eta detektibeak» filmearen emanaldia, 20:00etan elizako arkupean, Udazkeneko Biraren barnean.

DANTZAK**DONAMARIA**

Azaroaren 21ean Txori-Zuri folklore dantza taldearen emanaldia 11:30etan plazan. Udazkeneko Biraren barnean.

KONTZERTUAK**ELIZONDO**

Azaroaren 21ean Benito Cabrera, Kanarietako folk musika Arizkunenea Kultur Etxean, 20:00etan. Folk Ametsetan zikloaren azken kontzertua.

Azaroaren 20an Rata Kalva eta Banda Batxoki Gaztetxean, 21:00etan.

Azaroaren 27an Akauzazte eta Kaskezur Gaztetxean, 21:00etan. Bi kontzertuak Jardunaldi Antidesarrollisten barnean.

BERA

Azaroaren 20an T.I. (Musika Garaikidea) kontzertua Kultur Etxean 20:00etan. Antolatzailea: Lamixine BAT.

GUARDIAKO FARMAZIAK**112 TFNORA. DEITU****Azaroaren 15etik 21era**

Lesaka (M. J. Txoperena), Doneztebe (S. Larraioz), Arizkun, Oronoz-Mugairi eta Leitza (M.I. Larraia).

Azaroaren 22tik 28ra

Bera (A. Lasarte), Igantzi, NARBART, Elizondo (J. Iturralde) eta Leitza (M.T. Plaza).

Az. 29tik abenduaren 5era

Bera (A. Lasaga), Doneztebe (J. A. Mendia), Elizondo (E. Arrupea), Urdazubi, Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

JAKIN BEHARREKOAK**Adopzioaren ondoko adaptazioa**

Haurraren adinaren arabera azaro ezberdinak sortzen dira

Adopzioak (batez ere nazioartekoak) izan duen igoera haundiaren ondorioz, guraso adoptiboek arazo batzuk izaten dituzte haurra etxe berrira ailegatzeko denean. Arazo hauek ezberdinak dira, adoptatutako haurraren adinaren arabera. Honela, adoptatutakoa ume jaioberria baldin bada, hau ez da gertatzen diren aldaketen guziz jabe izaten. Honek ez du erran nahi adin gehiagorekin zailtasun gehiago izan direnik, adoptatutako haur baten adaptazioan gehien eragiten duena haur horrek aitzinetik izan dituen esperientziak baitira.

Halere, orokorrean erraten ahal da aunitan adoptatutako haurrek kontrolatu ezin duten sentimendu batzuk izaten dituzte eta horrek nahasketa eta ezinegona sortzen die. Kontuan hartu behar da haurrek lehendabiziko hilabete edo urteak pasatu dituzten inguruan hartutako ohiturak izan diren dituztela eta denbora horretan hartutako ohitura horiek eragina izan dute bere bizitza berrira adaptatzeko prozesuan. Adoptatutako haurrek izaten dituzten arazo arruntenak hauexek dira:

• Umore aldaketa azkarra.



- Ohatzean pixa egitea.
- Jaterakoan nahasteak (hagitx abudo jaten du edo janaria gordetzen du akautuko zainaren beldurrez, etab...).
- Hiperaktibitatea eta oldarkortasuna.
- Arreta jartzeko arazoak.
- Loaren nahastea (ez du ohatzean lo egin nahi, ametsgaiztoak ditu, gauerdian ernatzen da).
- Bapateko kaskarrak eta kontrolrik gabeko negarra.
- Ikaskideekin harremana-

tzeko arazoak.

Guraso adoptiboek jakin behar dute arazo hauek gertatzen ahal direla. Haurrari lagundu behar diote bere adaptazioan, pazientzia eta denbora eskainiz, jarrera hauek pixkanaka desagertzen joanen baitira. Ez da gehiegi kezkatu behar, haurrak denbora behar du bere bizi berria berreginatzeko, bertzerik ez.

Rake! AMIGO
Bortzirietako Gizarte Zerbitzua

LIBURUAK

Osaba Bin Floren

J.M. OLAIZOLA «Txiliku»

ELKAR 2004

Osaba Florentinok ahalmen miresgarriak ditu. Behin kaskarreko latz bat hartu zuen, eta medikuak bendak jarri zizkion buruan, turbante baten gisa. Eta ohera sartzeko agindu zion. Hala, bere turbantearen azpian, osaba Florentino osaba Bin Floren bihurtu zen bat-batean. Eta etxekoek, beti bezala, Osaba Florentino deitzen ziotenean, bera haserretu egiten zen, eta horrela erantzuten zion: «Ni ez naiz osaba Florentino, ni osaba Bin Flo-

ren naiz, Bagdadeko Abus Nuas ipuin-kontalari ospetsuaren adiskide kutuna». Eta Bagdadeko ipuin kontalari batek hiriko plazan nola, halaxe kontatzen ditu ipuinak Osaba Bin Florenek ohetik mugitu gabe. Eta, Ekialdeko tradizioari jarraituz, ipuin bati kateatuko dio beste bat eta hari beste bat, edo txertatuko du ipuin bat kontakizun baten barruan, eta horrela, Mila eta bat gau liburuan bezala, Arabiar golkoan zehar bidaiatuko dugu.

inaugurazioa

azaroaren 20 noviembre

besta 20 festa

sorpresas

dj musika opariak sorpresak
dj musicaregalos sorpresas



"LUR" TABERNA

azaroak **26**
ostirala

gaueko 11:30etan

musika zuzenean

ondotik DJ

"LUR" DANTZALEKUA

azaroak **27**
larunbata

gaueko 12:30etan

Gozategi

ondotik DJ

AUTOBUSAK herrietara itzultzeko goizeko 7etan

>>1 Lur dantzalekua _____

Lekarozko bidegurutzea, Gartzain,
Ziga, Aniz, Berroeta, Almandoz, Oronoz,
Narbarte, Legasa, Doneztebe, Arraioz.
Elizondoko plaza, Elbeto, Arizkun,
Erratzu, Amaior, Azpilkueta.

>>2 Lur dantzalekua _____



elizondo(nafarroa)

www.lurelizondo.com

00-34 **948 63 54 58**

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta
justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

- **ELIZONDO.** -2. eskuko pisuak salgai.
- **DONEZTEBE.** - Eraikuntza berriko 2 pisu eta lokal komertzialak salgai.
- **BORTZIRIAK.** - Eskaera handia dagoenez baserri eta bordak erosten dira.
- **BERA.** -Pisu pare bat salgai.
- Terrenoak erosten dira.
- **LESAKA.** - Eskaera handia dagoenez pisuak erosten dira - 2. eskuko pisu bat salgai.
- Partzela eraikigarriak salgai.
- **ARANTZA-IGANTZI** aldean eskaera handia dagoenez, baserri edo etxeak erosten dira.
- BAZTAN-BIDASOAN:** baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.

948 451 841 / 948580705 / 607 978 656

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisua salgai Agerra auzoan, 3. solairuan, eguzkitsua eta mobleztatua. ☎ 619 371089.

BERA. Moldaketa beharra duen pisua salgai, 3. solairua, baratze eta ganbararekin. ☎ 943 634155 edo 667 074419.

LESAKA. Pisua salgai, ikuspegi ederra, igerilekuaren ondoan, igogailuarekin. ☎ 650 319350 - 948 637951.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. Merke. Ez du inporta zein egoeran dagoen. ☎ 948 631428 (11:00etatik 13:00etara).

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

BERA

Herri erdian dagoen kafetegia salgai, jubilazioa dela-eta. Bezero aunitz eta onak.

☎ 948 630 254

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LESAKA. Albistur 55-Jan, 45 m²ko bajera komertziala errentan ematen da. ☎ 667 605233 edo 948 637780..

ZERBITZUAK

205 Zurginak

ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako

zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

ADOS abokatuak

Egunero: abokatuak, prokuradoreak...

Zerbitzu juridikoak: herentzia, kontratu eta tasazioen papeloen tramitazioan behar duzun laguntza.

Helbidea: Santiago karrika 47, Elizondon.

Telefonoa: 948 580705.

Informazio gehiago nahi izanez gero, etorri gure bulegora edo deitu konpromisorik gabe.

LANA

301 Eskariak

Emakumea eskaintzen da lan egiteko, interna edo externa moduan. ☎ 620 455281.

Emakumea eskaintzen da lan egiteko, adinekoak edo haurrak zaintzen, etxeak garbitzen edo bertze edozein lanetan. ☎ 639 925403.

Neska bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta zaharrak zaintzeko. ☎ 637 020894.

Neska bat eskaintzen da externa edo interna edo orduka lan egiteko. Garbiketan



eta adinekoak eta haurrak zaintzen, esperientzia duena. ☎ 628 550485.

Saltzaile administraria eskaintzen da, euskara eta frantsesa ongi dakiena eta esperientzia handikoa. ☎ 687 832844.

Kontabilitadadeak, zergak, nominak, aseguroak etaba egiten ditut. ☎ 687 832844.

Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Badu C1 gidatzeko baimena. ☎ 690 757814.

Klase guztietako erreformak egiten dira: sukaldeak, bainugelak, teilatuak, etab...

☎ 658 808456-649 270418.

LANA

302 Eskaintzak

IBARDIN. Jatetxe batean zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. Informazioa ☎ 629 694443.

IRUN. Pertsona euskaldu-na behar da etxeko lanetarako eta umeak zaintzeko. Lan egun osoa, kontratua eta Gizarte Segurantzak. ☎ 629 205064 (Ana).

Zerbitzaria behar da. ☎ 650 831392 (Mario).

Ertzaintza. 200 lanpostu bete behar dira. Eskola Gra-

Lan bila zabilta?

LAN ESKAINTZA OSTALARITZA Sukaldariak, laguntzaileak. Plaza libreak Diputaziorako. Informazioa doan.	LAN ESKAINTZA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA Galar, Berriozar, Fitero, Burlata, Lizarra, Beraingo Udaletxetan lanpostuak bete behar dira. Informazioa doan.
PEOIAK 22 lanpostu bete behar dira Lizarra, Burlata, Doneztebe, Berrioplano eta Beraingo Udaletxetan. Informazioa doan.	Mantenimendua Peoiak, langileak, soldatzaleak, zurginak, igeritzaileak, elektrizistak, mekanikoak, gidaria, 21 lanpostu libre Burlata, Miranda de Arga, Doneztebe, Lizarra, Berrioplano, eta Beraingo Udaletxetan. Informazioa doan.
Presta zaitetz. Informazioa dohan. 948 199 596	

REMONTKar

**IMPORTAZIO
IBILGAILUAK**

AUTOS
MERCEDES
VOLKSWAGEN
ETA BERTZE MARKAK
lortu gaituzte

www.remontkar.com

eskatu informazioa:
info@remontkar.com

GANIX
Tailerra

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

**IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua**

**SAMPI ARAGON
ZOANSA**

Lur orotariko ibilgailuak (4x4),
furgonetak eta
autoak erosten ditugu.
Eskura ordaintzen dugu

☎ 948450354 • 948625555 • DONEZTEBE - BERA

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Mitsubishi DID 3-5 atekoa, Vitara 3-5 ate TD, Opel Zafira, Astra DTI
5 atekoa, Terrano II 3 ate, Opel Corsa, Ford Puma, Nissan Patrol 3
ate, Peugeot 206, Jeep Grand Cherokee eta Citroen Jumper.
SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

**BOAN
TAILERRA**

**AUTOEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA**
☎ 948 63 06 23 • BERA

ADOS

**ELIZONDON
ADOS INMOBILIARIA**

HELBIDEA: SANTIAGO KARRIKA, 47
TELEFONOA: 948 580705
ORDUTEGIA:
astelehenetik ostiralera: goizez 9:30 - 13:30; arratsalde 16:30 - 19:30
larunbatetan 9:30etatik 13:00etara
WEB-ORRIA: www.ados-inmobiliaria.com
HELBIDE ELEKTRONIKOA: adosbaxtan@ados-inmobiliaria.com

- Baserri, etxe, borda, lur eremu, etab. salerosketa
- Kontratoak
- Gestioak
- Zerbitzu juridikoak (egunero: abokatuak, prokuradoreak, notarioak...)

DONEZTEBEN BETIKO LEKUAN SEGITZEN DUGU:
Parrokia, 9 • Tel: 948451841 • Korreo elektronikoa: ados@ados-inmobiliaria.com
WEB: www.ados-inmobiliaria.com

duatua edo ikasketa gehia-
gokoak. Izen ematea zaba-
lik. Informazioa ☎ 948
199596.

Mantenimendua: Peoiak,
langileak, soldatzaileak, zur-
ginak, igeltseroak, elektri-
zistak, mekanikoak, gidaria.
21 lanpostu libre. Udaletxe-
ak: Burlata, Miranda-Arga,
Doneztebe, Lizarra, Berrio-
plano, Barañain. Informa zai-
tez. ☎ 948 199596.

150 urgazle (subalterno).
Abudo sartzeko: lorezainak,
garbitzaileak, igeltseroak, or-
denantzak, atezainak. Infor-
mazioa doan. ☎ 948 199596.

**Administrari laguntzaile-
ak.** Lanpostu libreak. Uda-
letxeak: Galar, Berriozar, Fi-
tero, Burlata, Lizarra, Be-
rrioplano, Barañain. Informa
zaitez. ☎ 948 199596.

Ostalaritza, sukaldariak, su-
kalde laguntzaileak, pintxe-
ak. Lanpostu libreak Era-
kunde Publikoetan. Infor-
mazioa doan. ☎ 948 199596.

Gidariak. Lanpostu libreak
Udaletxetan, Diputazioan,
Nafarroako Gobernuan. Infor-
ma zaitetz. ☎ 948 199596.

Hautzaindegia publikoek be-
har dute: zaintzaileak, haur
hezitzaileak, haurren lagun-

tzaleak. Informa zaitetz. ☎
948 199596.

Vital Kutxa. 11 lanpostu li-
bre Antsoain, Lizarra, Burla-
ta, Berriozarren. Informa zai-
tez. ☎ 948 199596.

Urgazleak (subalterno), ate-
zainak, eskolazainak, harre-
ragileak, jakinarazleak, zain-
dariak. Lanpostu libreak Na-
farroako Gobernuan, Uda-
letxetan. Informa zaitetz. ☎
948 199596.

**Liburutegietako lagun-
tzailea.** Museoak, doku-
mentazioa zentroak. Lan-
postu libreak. Abudo sartzeko.
Informa zaitetz. ☎ 948
199596.

MOTORRA

501 Salerosketak

CX 2.500 2 Turbo diesela
salgai. ☎ 607 978656.

Seat Toledo Signum TDI
autoa salgai, 110 zaldikoa,
kristal igogailu elektrikoa, itxie-
ra zentralizatua, klimatiza-
dorea eta bertzelako extrak.
1999koa, 100.000 km, oso
egoera onean. 9.000 euro.
☎ 629 466053 (Jabi).

Citroen Xsara 1.6. gasolina
autoa salgai, NA-AY matri-
kuladuna. ☎ 661735052.

ANIMALIAK

601 Emateko

Katukume zoragarriak opa-
ri emanen nituzke. ☎ 948
637213.

Spanier zakurrak (arra eta
emea) oparitzeko. ☎ 677
594892.

Hiru hilabeteko **collie za-
kurkumea** oparitzen da. ☎
948387018 edo 943009790.

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Labrador arrazako txakur-
kumeak salgai, pedigreeare-
kin. ☎ 948 451787.

Behi gorriak eta deretxoak
erosiko nituzke. ☎ 616
482921.

DENETARIK

701 Galdu-aurkituak

SUNBILLA. Basurde ehizi-
ko bi zakur galdu dira, bat
marroi kolorekoa eta bertzea
beltza pinta xuriek. ☎ 670
402605 (Valentin).

LESAKA. Itsaszelaita etxo-
lan Volkswagen kotxe baten
giltzak agertu dira. ☎ 677
594892.



BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioien
bilketa egunak

2004ko abenduaren 2an

Bera9etatik 12etara
Etxalar13etatik 14etara

☎ 948 635 254 - Etxalar



BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Gizarte enplegu babestua garatzeko aditua,
oposizio-lehiaketa bidez, aldi baterako eta
lanaldi osoan hartzeko deialdia

Baldintzak: Deialdian ezarritakoak.

Eskaeren aurkezpena: Mankomunitateko Idazkaritzan,
Etxalarko Herriko Etxean.

Aurkezteko epea: Hogeita hamar egun naturaleko epea
izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean
argitaratu eta biharamunetik hasita.

Deialdia interesatuen esku egonen da Mankomunitateko
Idazkaritzan.

Etxalarren, 2004ko urriaren 25ean
Presidenteak

DENETARIK

702 Salerosketak

Keroseno estufa salgai, ka-
sikberria. ☎ 948453110 (baz-
kaltzeko tenorean).

Egur sukalde ekonomikoa
salgai, Lakunza markakoa.

Neurriak: 85x90x60. Prezioa
negoiatzeko. ☎ 948627557
(21:00etatik aurrera).

Belarra fardotan erosiko nu-
ke. ☎ 948 451787.

Argazkiak berreskuratzeke, bidali kartazala zure helbidearekin.



JON ARANBILLET GALZAGORRI sunbilda-
rrak 7 urte bete
ditu azaroaren
7an. Zorionak
eta ongi pasa
eguna zure fa-
miliaren parte-
tik.



OIER ZUBIETA ELGARRESTA andoaindarrak
3 urte bete ditu
urriaren 28an. Zorionak eta
musu bat. Goi-
zuetako familia,
berezik Oihane
eta Naroa.




**ASIER LATO-
RRE OSUA** etxalartarrak
azaroaren 9an
urte bat bete
du. Zorionak ai-
ta eta amaren
partetik.



**SAIOA ZELAIE-
TA LAZKANO** beratarak 4
urte eginen ditu
azaroaren
30ean. Zorion-
ak eta musu
handi bat etxe-
ko printzesa-
rentzat.



Etxalarko
**MANUEL
AGIRRE
IRAZOKIK**
urteak beteko
ditu azaroaren
17an. Zorionak
eta aunitz urtez
Osaba Manuel.



**ASIER LATO-
RRE OSUA**
etxalartarrak
azaroaren 9an
urte bat bete
du. Zorionak ai-
tatxi, amatxi eta
lehengusuen
partetik.



**IRATI ANDUEZA
AZPIROZ** donez-
tebarrak urte bat
beteko du aza-
roaren 19an.
Zorionak bitxa,
atta, ama eta
Leitzako amona,
atona eta osa-
ben partez.



Zorionak
ALORARI, zure
21.7
urtebetetzean.
Aizu, ez zaude
adinean
kukafara
botatzeko.
Nortzuk gara?



**PATXI LOIARTE
PETRIKORENA**
igantziarrak 2
urte beteko ditu
azaroaren
27an. Zorionak
familia guztia-
ren partetik.



**MAITANE
AGERRE
IPARRAGIRRE**
igantziarrak
azaroaren 28an
3 urte beteko
ditu. Aunitz
urtez familiaren
partetik.
3 muxu.



Etxalarko **MA-
TTIN GUTIE-
RREZ GOMEZ**ek
4 urte beteko di-
tu azaroaren
30ean. Zorionak
txiki, handitzen
ari zara. Aita eta
ama.




XURIKO berata-
rrak 50 urte be-
teko ditu azaro-
aren 18an. Zo-
rionak lagun-
en partetik.



XOTA berata-
rrak 70 urte be-
teko ditu azaro-
aren 24an. Zo-
rionak lagun-
en partetik.



JUAN JOSE
beratarak
urteak beteko
ditu azaroaren
19an. Zorionak
lagunen
partetik.




Sunbilla **FITIPALDIA**rentzat:
etorkizuneko pilotarentzat
zorionak!! Utzi ralliak eta ikasi
gidatzen, ja, ja, ja...!!! Muxuak
Sara eta Ainhoaren partetik.



NAHIA eta **ANE ETXEBERRIA**
URTXULUTEGI zubietarrek urtea
beteko dute azaroaren 25ean.
Zorionak eta muxu haundi bana
bi sorgintxo politei, familiaren
partetik.



Donetebeke
**LAURA ERA-
TSUN ELIZON-
DOK** 9 urte be-
teko ditu azaro-
aren 29an. Zo-
rionak eta mu-
xu handi bat fa-
miliaren parte-
tik.



Lesakako
**NATALIA GOIE-
NETXE GONZA-
LEZ**ek urtea
beteko du aza-
roaren 19an.
Zorionak etxe-
ko xagutxoari:
gurasoak eta
Virginia.

alkain-ek, beti ere zerbait gehiago



Alkain zeramikak eta bainuak saltegia
ahalegin guztiak egiten ditugu gure bezeroak
ondo artatzen: kalitatea, barietatea, diseinua,
prezio on bat ...eta zerbait gehiago.

Horregatik, **zuk komun-ontziak eta iturriak**
erosten dituzunean, **kenketa automatikoko**
txartel bat emango dizugu altzarrietan eta

bainuko akzesorioetan deskontatzeko. Gainera,
txartelak zenbaki bat darama eta horrek aukera
emango dizu **Kanarietako bidaiaren** zozketan
parte hartzeko.

Zatoz eta zeuk egiaztatu: abantaila kontuetan
Alkain-en zerbait gehiago aurkituko duzu
beti.

 **alkain**
zeramikak eta bainuak

C/ Amutalde, 21 • Hondarribia • Tel.: 943 64 52 54
www.alkain.com



PILAK GAES-en

deskontuak
beti
zure esku

%40ko
deskontua

ESKaintza BEREZIA

GARBIGARRIAK

18€

AUDIFONO MIKROKANALA

ia ikusezina



83€-tik
aurrera
hilean



Mendibil Merkatal Gunea • Tel.: 943 63 99 10

IRUN



ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 - Tfnoa: 948 63 77 80 - NA - 31770 LESAKA

IKASI BIRZIKLATZEN

zure esku dago



Siloetako plastikoak



Traste handiak

Mahaiak, armairuak, lanparak, hozkailuak, mikrouhinak, arropa garbigailuak, telebistak, bideoak, musika ekipoak, ordenagailuak...

Ez utzi karrikan edo edukiontziaren ondoan !!

Honako telefonoetara deituz

BAZTAN: 948 580 006

BORTZIRIAK: 948 635 254

MALERREKA: 948 451 746

eta kosturik gabe etxera joanen dira bila.



TELEFONOAK

Baztango Udala	948 580 006
Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea	948 635 254
Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea	948 451 746



Baztango
Udala



Bortzirietako
Hiri Hondakinen
Mankomunitatea



Malerrekako
Zerbitzu Orokorren
Mankomunitatea



Nafarroako
Gobernua